

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko azaroaren 1a. VIII. urtea. 2.299. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



R. CALVO

→ **Sari Nagusia banatuko dute gaur.** Gaur bukatuko da Tolosako 43. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa. Azken egun hauetan emanaldi asko izan dira herrian, tartean irudian ikusi daitekeen Erresuma Batuko Songmen taldearena. Larunbatean bertan, dena den, Europako Sari Nagusiaren txanda izango da. Bost taldek hartuko dute parte, horietako bat Euskal Herrikoa delarik: Kup taldea. ◦ 2

Otaegi: «Ez nuen ninerik eman; lehen enborretik nabaritu nuen hori»

Zizurkilgo Joseba Otaegik ezin izan zuen Xabier Zaldua garaitu; zumarragatarrak 36 segundoko aldea atera zion apustuan ◦ 6

Bonberenea Txaranga eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots, bat eginik

«Tolosako gaztetxeak eta Euskal Herriko pailazorik ospetsuenek 2002an hasitako bideak era natural batean eskatu du proiektu hau egitea», diote ◦ 3



Lanak CDa eta DVDa ditu, eta 11 abesti eta 12 ipuintxo biltzen ditu. I. TERRADILLOS

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com





Lehen irudian El León de oro taldearen atzo arratsaldeko emanaldia, erdian, Marco Antonio García de Paz zuzendaria dagoela, eta bigarrenon Songmen, Santa Klara elizako saioan. R. CALVO

Gaurko Sari Nagusiaren zain daude Abesbatza Lehiaketako 19 taldeak

Tolosako 43. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako amaierako saioa gaur izango da, 11:00etan Leidor antzokian

19:00etan Convivium Singers entzun ahal izango da San Frantzisko elizan

Rebeka Calvo

Gaur bukatuko dira urduritasunak. 11:00etan izango da Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren amaierako saioa, eta or-

duan emango dute jakitera 43. edizioko Sari Nagusia zeinek irabaziko duen. Abesbatza musikareren zaleek, hala ere, kontzertuak entzuteko aukera izaten jarraituko dute, izan ere, gaur 19:00etan

Erresuma Batuko Convivium Singers taldearen abesbatza kontzertua entzun ahal izango da San Frantzisko elizan. Eta ostegunean, hilak 3, Santa Klara elizan 19:30etik aurrera, Ukrainiako Orey Chamber ariko da.

Ostiralean berriz, Euskal Herriko Kea Ahots Taldea entzun ahal izango da leku eta ordu berean.

Musika sakratua

Azken egunetan abesbatzen doinuak izan dira nagusi herrian, eta urteroko moduan, talde bene-

tan onak gerturatu dira Tolosara. Atzo bertan, Santa Klara elizan musika sakratuko emanaldiak izan ziren: Letoniako Luar ahots taldea, Erresuma Batuko Songmen, Txekiako The Gentlemen Singers, Errusiako Novy Vek, eta Erresuma Batuko Convivium Singers.

Arratsaldean, Leidorren, Asturiasko El León de Oro abesbatza eta AEBeko The Choral Projectek kantatu zuten polifonia saillean, eta folkloren aldir, Landarbaso abesbatza, El León de oro, eta The Choral Project.

Gaurko Sari Nagusia, hala ere, ez da Tolosan banatuko den sari bakarra; 43. edizio honetan Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia ere jokoan da. Larunbatean, hilak 5, izango da eta bertan bost abesbatza lehiatuko dira, eta bat, Euskal Herrikoa izango da, Kup taldea hain zuen ere. Hauek dira gainontzekoak: Italiako Coro Città di Roma, Alemaniako Consono Chamber Choir, Suediako Svenska Kammarkör eta Hungariako Cantemus Children's Choir. Saioa 17:30ean hasiko da, Leidor antzokian.

Arrakastatsua



Iritzia
Migel Zeberio
Koru zuzendaria

Kronika hau idatzi eta berehala, amaitua izango da 2011ko Tolosako Abesbatza Lehiaketa. Esate erraza bada ere, berriki ARRAKASTATSUA suertatu da. Hitz larritz azpimarratzen dut, ez baita haize ufada bakarraren antzera horre-

lakorik lortzen. Kultura eta herrialde askotarikoak, eta horien artean baita Euskal Herrikoak ere.

Errenteriako Landarbaso abesbatzako kantariak ilusioa piztu zuten, beren zaletuak berotasunaz etorri dira jaialdira eta antze-man da. Haurren ekitaldian usadio bihurtu den ikuslego andanak igande eta astelehen arratsaldean jarraipena izan dute berarrei esker.

Ahots taldeen esparruak ez gintuen txunditu, baina gustagarria izan zen.

Letoniako Luar emakumez osatutako taldeak arazoren bat izango zuelakoan nago, alderrai

ibili ondoren une batzutan. Erresuma Batuko talde bi; Songmen: estetikioki zuzentasunaren aukera zeramaten, enpaste goxokoak, aukeran xuxurlatuegiak eta Convivium Singers, hamabost lagunekin talde handia, britaniar musikaren erosotasuna aurkitu zutena.

Txekiako The Gentlemen Singers taldeak beren ahots tinbre aberatsekoek baliatuz egindakoez, Dvoraken perlatxo berezia, Poulenc edo Szabóren Summer time moldaketekin geldituko nintzateke, izpiritualenak eta emankorrenak iruditu zitzaizkidan.

Haur abesbatzetan, aniztasuna izan genuen present; St. Petersburgoko Irratikoak ahalmentu iruditu zitzaizkidan instrumentu bezala, armoniak garbitasunez adierazteko, ahots agudo guriak

edo grabeetako borobiltasunak ongi ekarriaz. Freddy Mercury ren doinu ezagun baten karira lasai aritu ziren. Asturiasko León de Oro taldea, solte une oro, beren baliabideei txinpartak ateratzen laguntzen dien zuzendariaren jarrierak, atal erritmikoan edo erlijio kanten testuetan murgiltzen, oztoporik apenas du.

Txinako Guangzhouk berriz, erakustaldi aparta lortu zuten. Egokitasunetik haratago, bikaintasunera jauzi egin zuten.

Helduen abesbatzei buruz bi zertzelada. Ukrainiako Oreyak hesi guztiak gainditu zituen, urteetarako gogoangarri izango den erakustaldiaz. Tesiturak, dinamikak, zailtasun eta sinpletasunak, tinbreak, eskenarartzea... zer esan, beste galaxia batekoak ziruditen. Guzti hori, era desber-

dinetako sentimenduak igortzeko mesedeetan jarria: otoitza, ametsa, maitasuna, gordintasuna... Letoniako Balsis ere bikain, errailetatik hustualdian, Pendekiren laztasunetik, Victoriaren soiltasunera, gazte izanagatik, jakintsu aritu ziren. Alemaniatik ere bi talde esanguratsu entzun ditugu.

Ederetasun honen lekuko izan garen bitartean, 70-80ko hamarkadetan lehiaketa honen, idazkari lanaz arduratzen zen Juanma Goñiren heriotzaren berri izan genuen. Beraien lanen jarraipena dira egungoak. Zigarroa eskuetan, idatz makinarekin aurrez aurre, dut gogoan, epaimahaikideekin bilera luze eta mamitsuetan eta beti umoretsu. Eskerrak bera eta oinarri sendo hura landu zuten guztiak.

Irudia ◊ **Orexa****FESTA, KULTURAREN AITZAKIAN**

Orexako kultur hamabostaldia bigarren astean murgildu da, eta lehenean gertatu bezala, hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango da honetan ere. Aurreko astea giro ezin hobean amaitu zen. La-

runbatean, haurrek ederki gozatu zuten puzgarrietan jolasean, eta baita helduek antzerkiarekin ere. Igandeko Uitzí-Orexa ibilbideak ohi bezala harrera ona izan zuten, giro politoan burutu zelarik. A. ZABALA

Irudia ◊ **Tolosa****PRESOAK EKARTZEKO ESKAERA**

Tolosaldeko LAB sindikatuak deituta, elkarretaratzea egin zuten ostiral eguerdian, Trianguloa plazan. Iragan urriaren 20an ETak jarduera armatua behin betiko amaitzeko erabakia jakitera eman ondo-

ren sortu den egoera politiko berriaren aurrean, dispersioarekin amaitu eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzea giltzetako bat izango dela dio euskal sindikatuak. ITZEAURKIZU

Bonberenea ere irrien laguna delako

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek kantak «Bonberenea erara» jaso ditu txarangak lan berrian

Iñigo Terradillos Tolosa

Bonberenea Txarangaren hirugarren diskoak ikusi du argia. Proiektua txarangaren «erronkarik handiena» izan dela diote bertako kideek. Izan ere, ez da nolana hiko lana Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin elkarlanean burutu dutena. Azaltzen dutenaren arabera, «Tolosaldeko gazteak eta Euskal Herriko pailazorik ospetsuenek 2002an hasitako bideak era natural batean eskatu du horrelako proiektu bati aurre egitea, eta disko honek ibilbide hori islatzen du».

Bertan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek kanturik eza-gunenak «Bonberenea erara» izan dira prestatuak, txarangaren hotsa pailazoaren ahots eta letrekin nahastuz. 11 abesti «dantzagarri» eta 12 ipuintxo osaturiko diskoan Bonberenea txarangak urte hauetan guztietan egingadako lagun askok ere parte hartu dute. Hala, Zea Mays taldeko Aiora Renteria, Su ta Gar taldeko Aitor Gorosabel, Gose taldeko Ines Osinaga, Doctor Deseo taldeko Francis Diez, Oreka Tx eta Agustín Mujika Takolo entzun ahaliko dira, besteak beste, eta baita Tolosaldeko zenbait artista ere.

Halaber, diskoarekin batera,



Pasa den larunbatean aurkeztu zuten lan berria Bonberenea Txarangakoek Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin batera. I. TERRADILLOS

hainbat elementuz osaturiko DVDA ere badago, ikus-entzunezkoen betea. Nabarmenezkoa da bertan ikusgai dagoen *Pirritx eta Porrotx gaztetxean* izena duen dokumenatela. Bonberenean ekoiztutako lana da: «Aurreneko bonbo, kaxa eta txindetatik hasita Bonberenea abestiaren bideokliperraino».

Larunbatean Bonberenean bertan txarangak pailazo ezagunek lagundurik jai giroan egin zuten aurkezpena. Porrotxek gazteen garrantzia azpimarratu

zuen: «Gazteek gaztetxean lan handia egiten dute Euskal Herri osoan, horregatik beharrezkoa da guztiontzat denek lan horretan jarraitzea». Marimotots ere ildo beretik jarraituz, Pirritxekin batera duela urte asko gaztetxean hasi zirela saioak eskaintzen gogoratu zuen, hauen garrantzia agerian geratze aldera. Pirritxek, bere aldetik, eskerrak eman zizkien Bonbereneako gazteei proiektu horretan elkarlanean aritzeagatik. «Ja 25 urteko ibilbidean abestu ditugun kantuak

zuekin, Bonberenea Txarangarekin abestea plazerra izan da», esan zuen. Txarangako kideek ere eskerrak eman zizkieten pailazoei, bai eta proiektuan parte hartu duten lagun guztieire.

Emanaldi ugari

Bestalde, diskoa aurkeztu baino ez dute egin, eta dagoeneko emanaldi bateriko egutegia dute tolosarrek.

Azaroaren 20an Donibane Lohitzunen izango dira; azaroaren 23an, Iruñean; azaroaren

27an, Gasteizen; abenduaren 6an, Durangoko azokan; abenduaren 17 eta 18an, Barakaldoko BECen; urtarrilaren 3an, Donostiako Kursaal; eta urtarrilaren 5ean, Arrasaten.

HARATEGIA SALGAI AZPEITIAN

Lokala bidari dago eta 90ez ditu informazio gehiagorako: 635 746 321

Tolosa



JENDETZA BILDU DU BESTE BEHIN, TOLOSA GOXUA AZOKA BEREZIAK

Tolosa Goxua azoka berezia izan zen larunbat goizean Tolosako Trianguloa plazan. Beste urte batez, gozoek jende ugari erakarri zuten bertara. Izan ere, gozozaleen gozamenarako, eskaintza ikusgarria izan zen azoka osatzen zuten postuetan. Bestalde, Bizkaiko gozogileei omenaldia egin zaie aurten, eta hori dela eta, bertako

gozorik tradizionalena den karolina banatu zuten herri-tarren artean. Herriko gozogileak izan ziren 4.000 karolina egiteko arduraduna izan zutenak. Tolosa Goxua azokak bestalde, Gazta Tarta lehiaketa ere hartu zuen, parte hartzaile ugariekin. Jose Ramirez, Jose Mari Gorrotxategi eta Elena Arzakek osaturiko epaimahaik

izan zuen gozogile bakoitzaren tarta probatu eta puntuak emateko ardura. Irabazlea Tolosako Uzturre asistentzi gunea izan zen, eta bigarren Errenteriako Puri Cuadradoren tarta sailkatu zen. Goiz pasa atsegina igarotzeko aukera izan zen, beraz, larunbatean, bertako nahiz kanpotik etorritakoen gozoak dastatuz. **11**

Bedaio

AZOKA BEREZIA «POLITA ETA ATSEGINA»

Goiztiar iritsi da aurtengo Bedaioko azoka berezia. Auzotarrak abendutik urrira aurreraztea erabaki dute, «baratzeen aberastasuna erakutsi eta eskaintzeagatik». Eta, hala izan da, eskaintza «oparua eta kalitatezkoa» izan baitzen herenegun. Denetarik izan zen auzoko baserriarren postuetan: jakiak, animaliak, artisautza... Eta, txikienek ere eurentzako tailerra izan zuten. Giro «ederra, polita eta borobila» nagusitu zen auzoko kaskoan. **HITZA**



HITZAK harpidedunentzat **3 sarrera pare** ditu

Ordezko Andereñoa
filma

Azaroak 6 • Igandea • 17:00etan Tolosako Leidorren

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
Valencia Basket
saskibalo partida

Azaroak 6 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



TOLOSA · DONOSTIA · HERNANI · ERRETERIA · VILLABONA



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

www.funerariavascongada.com
902 402 900



↓ Kirol emaitzak

ARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Laskorain-Atenea Ikusnet 1-4

Sailkapena

1. Ebrosala 12p.
2. Atenea Ikusnet 12p.
3. Zalatambor 9 p.
7. Laskorain K.E. 7 p.

HIRUGARREN MAILA

Egintza Transportes

Lakuntza-Bilbo 1-6
Mallabia-Ibarra 2-4

Sailkapena

1. Ibarra 15 p.
2. Sestao 14p.
3. Bilbo 13p.
9. Egintza Transportes
Lakuntza 8p.

EUSKAL LIGA

Goierri-Tolosala Hirukide 3-4

Eskolapioak-Isu Leihoak 3-6

Tolargi Atsedenaldia

Sailkapena

1. Mamarigako 18 p.
2. Tolosala/Hirukide 18 p.
3. Tolargi 10p.
7. Eskolapioak 9 p.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

Tolosa-Aloña Mendi 1-0

Sailkapena

1. Anaitasuna 20p.
2. Tolosa 15 p.
2. Real Union Club 14p.

ERREGIONAL

PREFERENTEA

Lehen taldea

Mariño-Tolosa B 0-0

Sailkapena

1. Ostadar 21 p.
2. Astigarraga Mundarro 19 p.
3. Tolosa B 17 p.

Bigarren taldea

Ordizia-Intxurre 4-1

Sailkapena

1. Soraluze 18 p.
2. Lagun Onak 15 p.
3. Antzuola 14p.
13. Intxurre 8 p.

SASKIBALOA

Bidebide Ibiza

Mondragon Unibertsit. 74 60

Sailkapena

1. Bide Bide Ibiza 4-1
2. C.B. Santurtzi 4-1
3. Leihoak Zarautz 4-1

PILOTA

LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Ligaxka

Barriola-Xala 22-15

Hurrengo partida:

Barriola-Martinez de Irujo

Sailkapena

1. Barriola 1p.
2. Irujo 1p.
3. Olaizola II.a 0p.
4. Xala 0p.

AIZKORA APUSTUA

14 enbor eta 8 kilometro

Joseba Otaegi 1: 18:42

Xabier Zaldua 1: 18:06



Xabier Zaldua eta Joseba Otaegi Azpeitiko apustuaren une batean. IBONERRAZU

Aizkora egindako lanari ezin izan dio eutsi korrika Joseba Otaegik

Xabier Zalduak 36 segundoko aldearekin irabazi du Joseba Otaegiren aurkako apustua

Asier Imaz Zizurkil

Xabier Zaldua eta Joseba Otaegi-ren arteko apustua korrikako proban erabaki zen. Aizkora egin beharreko lanak zizurkildarrak bukatu zituen azkarren, hiru minutu eta hamasei segundoko aldea atera ziolarik Zumarragako semeari. Zortzi kilometroko distantzia burutuz, ordea, Zaldua izan zen lehena eskuak altzatzen. Jokoan zeuden 5.000 euroak ondorioz, Zalduak irabazi zituen.

Azpeitiko zezen plazan jokatu zen apustua igandean, eta jendeak erantzun ona eman zuen. Ikusmina zegoen, eta dirua Otaegiren alde atera zen, 100-60. Lehenik, 14 enbor moztu behar zituzten: 10 kana erdiko eta lau 60 ontzako. Ondoren, zezen plazan bueltaka, 8 kilometro egin behar zituzten korrika.

Aizkora zizurkildarra indartsu hasi zen, lan erdian hiru minutuko aldea zuelarik. Zalduak ordea, atzetik aurrerako lana egin zuen, eta proba amaitzean 3 minutu eta 16 segundoko galera besterik ez zuen. Korrikako proban Zaldua bizkorrago ibili zen, kilometroko 30 segundo ateraz zizurkildarrari. Amaieran, 36 segundoko aldearekin irabazi zuen apustua Xabier Zaldua zumarragatarrak.

«Ez nuen nirerik eman»

Otaegi ez zen gustura gelditu Azpeitian egindako lanarekin. Txikonon aurka korrika ezinean ibili zela onartua zuen, eta arantza hori kentzera irten zen igandean, baina berriro ere ezinean ibiltzea tokatu zitzaion: «Ez nuen nirerik eman; lehen enborretik nabaritu nuen hori. Azkarregi edo presionatuegi hasi nintzen. Lotuta ibili nintzen apustu guztian zehar, eta pena horrekin gelditzen naiz berriro ere». Amaierako diferentzia txikiak, sufrimendu hori areagotu egiten duela onartu zuen zizurkildar gazteak: «Ez dakit bera nola ibili zen, baina diferentzia hori ikusteak eta ni nola ibili nintzen jakiteak... pena horixe daukat, ez dakit zer gertatuko zen nire eman izan banu, baina hori plazan erakutsi behar izaten da».



Unai Otaño Zalduarekin. Ibartarra Otaegi laguntzen ibili zen. IBONERRAZU

Urteurrena



- II. URTEURRENA -

JOSE LOPETEGI URBIETA

2009ko urriaren 31n hil zen, 74 urte zituela

- Goian bego -

Maitasunak ez du neuririk
Zure hutsuneak ez du mugarik

Bere emaztea: Kontxi Bergara; alaba, suhi eta ilobak

Zestoan, 2011ko azaroaren 1ean

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Laskorain Ikastolari etxean galtzea tokatu zaio

Atenea Ikusnet talde historikoaren aurka 1-4 galdu du etxean; hasieratik jarri zaie maldan gora partida

Erredakzioa Tolosa

Areto futbolaren 2.B mailan jokatzaren txanponaren bi aldeak ezagutu zituen joan den larunbatean Laskorainek beste behingoz arerioaren aurrean, barruan dagoen oro eman eta denboraldiko bere lehen norgehiagoka galdu eta gero.

Alde ona, lan txukuna burutu eta Atenea bezalako talde historiko baten aurka lehiazko aukera eduki izana; aurtengoan horrelako txanpa ugari espero dira.

Alde txarra, itxura ona eman eta gero, bere larrua garesti saldu izanagatik, neurketa galdu eta punturik batu gabe aldagaletarako bidea hartu behar izana.

Ateneak, ligako liderra dugu momentuz, ondo erakutsi zuen futbolerako erabiltzen dakien tresneria: atezain bikaina, defentsa sendoa eta estrategia zuhurra tartekatuz, emeki-emeki, tolosarren gainetik gailentzen joan zen une bakoitzean bere sarean harapatu zituelarik Javiren mutlak. Presarik gabe eta erritmo aldaketa azkarrek erabiliaz, aurreko leku hartzea izan zuten Endikaren ate inguruan, tarteka

estrategia, besteetan kontraeraso, eta azkenean, areaz kanpotiko zenbait jaurtiketaren ondoren, 0-1ekoa lortu zuten kanpotarrek laskoraindarren bizkar gainean lehen kolpea emanaz.

Emaitza estua zen oraindik, eta bigarren zatian gogotsu irten ziren horitxoak jokoaren pisua ederki banatuaz, itxaropenerako betarik bazen oraindik baina arbarren arretak pizturik ziharduen eta baloi galera baten ondorioz 0-2koa ipini zen elektronikokan. Tourmalet-aren ondoren igotzen da Luz Ardiden, eta bururik makurtu gabe jarraitu zuten etxekoek temati. Ate aurrean asmatzerik ez eta atezain jokalariren taktikarekin azken ahaleginak egin ondoren, 1-4ko emaitzarekin amaitu zen partida.

Jonikok egin zuen Laskorainen gol antzua. Ez zen norgehiagoka txarra jokatu dena den, eta datorren astean modu positiboan pentsatzen hasi beharra dago ahalik eta azkarren, Pinseque A.D. aragoarrari egingo zaion bisitan garaipea lortzeko asko erraztuko lituzke aurtengo bide luze eta neketsuan lortu nahi diren helburuak.

Larunbatean Usabalen, Javi eta Aitor delegatuak, Javi entrenatzailea, Endika, Gil, Lander, Loitzun, Etxebe, Joniko, Ekhi, Belloso eta Aratz izan ziren. Diez, Telleria, Alonso eta Murgiren berreskurapena epe laburrean emango dela espero da.



Laskorain Ikastolak etxean jokatu arren galdu egin zuen. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudia Tolosa



PARTE HARTZE HANDIA OLARRAINEN

Olano Peñak XXIII. Mendiko Bizikletaz Trabesi Herrikoia antolatu zuen igandean, Olarrainen. Antolatzaileak oso gustura gelditu ziren bertan bizitakoarekin, 191 lagun parte hartzea izan baitzuten; «arakastatsua izan zen», azaldu dute. Abra-

ham Olano ere atera zen proba herrikoian, «eta sasoiari dagoea erakutsi zuen, lasterketa buruan ibili baitzen». Antolakuntzako lagunaren esanetan, istripuren bat izan baldin bazen ere, ez zen ezer larririk gertatu igandeko trabesian. AMETS ZABALA

Barriolak Lau t'erdiko ligaxkako lehen puntua lortu du

Eibarko Astelena pilotalekuan 22-15 irabazi dio leitzarrak Xalari, joko erakustaldia eginda

Asier Imaz Leitza

Larunbatean ahaztea zaila izango den partida jokatu zuten Olaiola II.ak eta Juan Martinez de Irujok, Lau t'erdiko txapelketa-

ren ligaxkan. Irujok lortu zuen garaipena eta puntua, 22-20ko emaitzarekin. Igandean, Barriolaren eta Xalaren txanda izan zen. Bezperako partidaren ikusgarritasuna gaintzea zaila zen, baina jokoan zegoen puntuak berdin balio zenez, emoziorik ez zen falta izan Eibarko Astelena.

Abel Barriolak pilotazaleak, eta baita Xala bera ere, ezustean harapatu zituen. Ohiko jokoa albo batera utzi, eta airez ekin zion partidari; bai defentsan eta

baita erasoan ere. Ideiak argi zituela arriskatu zuen, eta ongi irten zitzaion jokaldia, 11-5 jarri baitzen markagailuan aurretik.

Xala orduan esnatu zen, eta 11-11 edo 13-13 jartzea lortu zuen. Leitzarrari partidak eskuetatik alde egin behar ziola zirudien, baina berriro burua erabiliz, botera eta luze hasi zen jokatzeko. Joko aldaketa honekin 17-13ko alde lortu zuen. Hortik 22rako bidea eta lehen punturakoa, maisuki jorratu zuen leitzarrak.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Esperientziadun emakume euskalduna, asteburuetan eta astean zeharreko jai egunetan, pertsona edadetuak zaintzeko eskaintzen da, Tolosan.

Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira, 626 11 92 50ra.

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua,

lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garaia, txokoa, jardina eta trasteleku. Interesatuak deitu, 678 26 76 57 telefono zenbakira.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agirre: «Azpeititik baietz lau pasa aurrera»

Billabonatarrek 478,5 punturekin amaitu zuen Hondarribiko saioa; Gpuntuak igandean jarraituko du, Azpeitian

Rebeka Calvo Villabona

Gpuntua finalurrekoetara iristeko zorian dago. Pasa den asteburuan Hondarribian eta Idiazabalaren izan ziren saioak, eta bertan izan zen Amaia Agirre.

Billabonatarra larunbateko Hondarribiko saioan izan zen, eta 478,5 puntu eskuratu zituen. Aitor Sarriegi izan zen onena 494 puntu eskuratuta, eta beraz, beasaindarrak finalurrekoetarako txartela eskuratu zuen. Saioan Alaia Martinek 481 puntu egin zituen, Iñigo Izagirik 471,5 puntu, Nahikari Gabilondok 467,5, eta Haritz Casabalek 440,5.

Agirrek azaldutakoaren arabera, «urduri» zegoen: «Oholtzara igotzeko eta lanak bakoitzak norekin egingo zituen erabakitzeke zerbakiak hartzen ari ginela oso urduri geundela onartu genuen batek baino gehiagok. Nik urduritasun neurtua neukan, baina beldurra nuen nagusi nire baitan. Oholtzaren gainetik eta behetik ezberdin bizitzen da saioa, baina gure artean oso giro ona zegoen, eta gauza bat geneukan oso argi: beste saioetan baino erritmo bi-ziagoan ari ginen, eta kopletan ere txaloei tarterik eskaini gabe aritu ginen».

Billabonatarri seigarren zenbakia egokitu zitzaion. «Berez lehen postuetan kantatzea nahiago izaten dudan arren, ez zitzaidan hain gogorra egin. Kartzelatik, hala ere, erlaxatuegi etorri nin-

zten, eta azken ariketan ez nuen gozatu. Azken ariketa kenduta, besteetan gustura sentitu nintzen, aldiro zerbait bururatzeko zitzaidan. Kopletan hobeto aritu nahi nuen, baina ez zen posible izan», argitu du.

Beste parte hartzaileen artean Alaia Martin eta Aitor Sarriegi sumatu zituen «seguruago»: «Aitorrek gehiago egin dezakeela argi daukat, baina bakarka berehala kantatu zituen hiru bertsoak. Erabat sinesgarriak iruditu zitzaizkidan, eta kopletan ere daukan maila beste behin agerian utzi zuen. Alaia lankidea dut, eta banekien bakarka lan izugarria egingo zuela, eta niri justu haren atzetik tokatu! (kar-kar). Duela lau urteko arantza ateratzeko desira zuen, eta oso ondo ari da. Beste hirurak urduriago edo gorabehera gehiagorekin aritu ziren, baina gure ustez saio ona izan zen. Agian puntuazio altuagoa espero genuen. Hori komentatu genuen behintzat. Baina gure irudipena baino ez da. Eta desioa ere bai, agian! (kar-kar)».

Martin ere finalurrekoetara igandean aldiz, Idiazabalaren izan zen final laurdenetako saioa. Oartzungo Jon Martin izan zen finalurrekoetarako txartela eskuratu zuena. Martinek Sarriegiren puntuaketa bera egin zuen: 494 puntu. Horrenbestez, finalurrekoetarako txartela lortu dute biek Beñat Gaztelumendirekin eta Larraulgo Jexux Mari Irazurekin batera.

Final laurdenetako azken saioa besterik ez da geratzen. Datorren igandean izango da, azaroak 6, 17:30ean Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, eta bertan Berrobin jaiotako Unai Muñoa ariko da, La-

sarteko Ane Labaka, Oartzungo Arkaitz Oartzabal, Zegamako Iker Zubeldia, Beasaingo Iñaki Apalategi, eta Azpeitiko Jokin Urangarekin batera. Agirreren iritzi zentsio handia izango da saio honetan. «Saio bakarra geratzen da entzuteko. Azpeitin tentsio handia egongo da. Urangak etxean jokatu du, eta hori bere alde du. Seikote indartsua da oso. Bakoitzak beretik ematen badu, eta saioa lehertzen asmatzen bada, argi! Agian bostek izango dute aurrera egiteko zoria!», esan du.

Zeinen alde egingo lukeen gal- detuta aldiz, Agirrek ez du inork

sufritzea nahi. «Badakit Ane Labaka ikaslea han izanik ni ere tentsioan egongo naizela. Andoaien elkarrekin egokitu zitzaigun eta elkar animatzen eta nire babesa eskaintzen ahalegindu nintzen, eta bukaeran eskaini zidan agur hunkigarrian gure arteko laguntasuna agerian geratu zen. Umetatik ezagutzen dut Ane, eta irakasle batentzat ohre handia da gisa honetako txapelketa batean zure ikasle izan direnen aldamenean kantatzea. Onena opa diot. Zorte ona denei opa diet, ez dezatela sufritu, horixe opa diet. Azpeititik baietz lau pasa aurrera! Eta Ane artean, noski!».

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Hilerrira joateko autobus zerbitzu berezia jarri dute gaurko, azaroaren 1a dela eta: 09:00etan, 09:45ean, 10:30etan, 11:15etan, 12:00etan, 12:45ean, 15:00etan, 15:45ean, 16:30etan, 17:15etan eta 18:00etan aterako da hiribusa musika eskolatik. Udaltzaingorak jakinarazitakoaren arabera, ibilbide hau egingo du: Eduardo Mokoroa Musika Eskola, San Frantzisko eliza, Geltokia, Berazubi, Iurramendi, Usabal Kiroldegia, Amaroitz auzoa, kanposantua, Iparragirre, Bizkaia kalea, J. A. Irazusta eta Trinketeko geltokia.

Azaroaren 5etik aurrera, egunkariarekin

Mantangorriren eskulan tailerra

24 fitxaz osatutako eskulan bilduma

Adina: 6-12 urte

**sortuz jolasteko,
jolastuz sortzeko**



4 FITXAZ OSATUTAKO 6 SORTA
Azaroak 5, larunbata,
lehen sorta
BERRIA + 3,5 €

Karpeta eta
ariketen CDA
OPARI

Nola eskuratu?

Azaroaren 5etik abenduaren 10era, larunbatero kioskoan, BERRIArekin

HARPIDEDUNENTZAT Bilduma osoa 19 euroren truke

Noiz egin eskaera?

Azaroaren 30a baino lehen

Nola egin eskaera?

TELEFONUZ: 943-80 43 45
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@berria.info
WEBGUNEAN: www.berria.info

Eskaria egiteko harpidedun kodea behar da Ipar Euskal Herriko irakurleek zuzenean eskatu: (0034) 943-80 43 45

Egilea: Karmela Cruz

Sibetarak



Elkarrekin, gure erakundeak...
Eusko Legebiltzarra
Euzko Legebiltzarra

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. Telefonoa: 943 36 49.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak